

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1376

601/2024 EBAZPENA, martxoaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren Ofiziala kategorian (Mantentze Lanetako Ofiziala lanpostu funtzionalak), txanda ireki bidez, estatutupeko lotura finkoa lortu duten esleipendunen izendapena (dagokion eranskinean agertzen dira zein diren esleipendunak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2018an eta 2019an iragarritako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren. (2021eko abenduaren 14ko EHAA 248. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 25eko 968/2022 Ebazpenaren bidez, onartu egin ziren Ofiziala kategorian (Mantentze Lanetako Ofiziala lanpostu funtzionalak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetako destinoetan, estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaprobak arautuko dituzten oinarri espezifikoak. (2022ko apirilaren 12ko EHAA 73. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren martxoaren 8ko 597/2024 Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta txanda irekiko destinoen esleipena argitaratu ziren Ofiziala kategorian (Mantentze Lanetako Ofiziala lanpostu funtzionalak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 1473/2021 Ebazpenaren 16. oinarrian xedatutakoari jarraikiz, Ofiziala kategorian (Mantentze Lanetako Ofiziala lanpostu funtzionalak) izangaien behin betiko zerrenda Epaimahaiak onartu eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusi honetara bideratu ostean, zerrenda hori webgunean argitara dadin; eta pertsonalaren arloan indarrean dagoen legeriak egozten dizkidan eskumenez baliatuz

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EHAA n argitaratzeko agintzea eranskinean jasotako esleipendunak estatutupeko langile finko izendatu direla, txanda ireki bidez, Ofiziala kategorian (Mantentze Lanetako Ofiziala lanpostu funtzionalak), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetako destinoetan.

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoaz jabetzeko, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian hartu beharko da destinoaren jabetza. Horretarako, izangaiak hitzordua eskatu beharko du lehenbizi, eta egintzan dokumentazio hau aurkeztu:

– NANA, pasaportearen edo gidabaimena edo dokumentu baliokidea Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea dutenentzat, edo

Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalentzat.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek nazionalitatea egiaztatzen dien dokumentua aurkeztu behar dute, eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen norbaitekiko ahaidetasun-lotura izan edo haren kontura biziz gero, lotura hori dutela egiaztatzen duten dokumentuak ere bai. Era berean, ezkontidearen zinpeko aitortpena edo hitzmatea aurkeztu beharko dute, ezkontideaz zuzenbidez bananduta ez dagoela adierazteko, eta, hala badagokio, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura dagoela adierazteko.

– Elkargoko kide izatearen egiaztatzea, deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen denean.

– Diziplina-espedita bidez hautagaia administrazio publikoetako zerbitzuetatik kanporatuta ez dagoela eta eginkizun publikoetarako ezgaituta ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena edo hitzmatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko deklarazioaz gain, zinpeko deklarazioa edo hitzmatea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako desgaituta edo antzeko egoera batean, eta orobat haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzeari eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

– Destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Prebentzio Zerbitzuak emana.

– Erantzukizunpeko adierazpena, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13.5 artikulua betetzeari buruzkoa; eta Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiria lortzeko baimena, urriaren 13ko 1314/2016 Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanpostuetan sartzeko eta jarduteko betekizunari buruzko jarraibide osagarriak onartzen dira.

Hirugarrena.– Emandako epe horretan aipatutako agiriekin bertaratzen ez direnak edo agiri horiek aztertuta antzematen bada betebeharren bat betetzen ez dutela, ezingo dira jabetu estatutupeko langile gisa esleitu zaien destinoaz. Ondorioz, deuseztatuta geratuko dira jarduerak, eta hori ez da eragozpena izango hasierako eskabidean faltsukeriaren bat jartzeagatik izan dezaketen erantzukizuna eskatzeko.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira dagokion epearen barruan edo, hala badagokio, emandako luzapenean, aurkeztu ezean, galdu egingo dituela hautaprobei buruzko ebazpenetan aitortu zitzaizkion eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, izangaiek lanpostuaz jabetzen badira, egin beharreko eginbideak egin eta hurrengo egunean hasiko dira lanean, esleitu zaien zerbitzu sanitarioetako erakundeetan.

Laugarrena.– Hautaketa-prozesuko oinarri orokorretako 21. atalean ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa ezar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2024ko martxoaren 18a, astelehena

ERANSKINA
OSAKIDETZAREN LAN-ESKINTZA PUBLIKOA 2018-2019
DESTINOEN ESLEIPENA
KATEGORIA: MANTENIMENDU OFIZIALA
TXANDA: TXANDA IREKIA

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***8264**	Zaldo Bolivar, Mikel	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit - Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Ez espezifikoko gehiago	2
***0182**	Oscos Orbegozo, Jose Maria	Debarreneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Eibariko Ospitalea / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Guardiaekin/Asteburuekin edota jaiegunekin	2 2021-03-01
***5492**	Aguirre Gutierrez, Alberto	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Arab. U. Ospitalea - Txagorrit - Kanpo Kontsult Eraik, Vitoria / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Ez espezifikoko gehiago	2
***3144**	Escribano Ruiz, Aitor	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Elektrizitatea / Gurutzetako Unibert. Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2
***8600**	Ormaza Bilbao, Ibai	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Iturgintza - Berogailua - Berokuntza / Galdakao-Ursoloko Ospitalea / Txandakakoa, 3 Txandatan - Txandakakoa, 3 txandatan - Ez espezifikoko gehiago	2 2022-11-20
***3830**	Martinez Ugarte, Iñaki	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Iturgintza - Berogailua - Berokuntza / Galdakao-Ursoloko Ospitalea / Txandakakoa, 3 Txandatan - Txandakakoa, 3 txandatan - Ez espezifikoko gehiago	2

2024ko martxoaren 18a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***6851**	Ainz Loizaga, Jon Ander	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Mekanikoa / Galdakao-Usansoloko Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifiko gehiago	2 2022-11-20
***7286**	Infurrita Gofii, Xiker	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Mekanikoa / Gurutzetako Unibert. Ospitalea / Txandakakoa, 3 Txandatan - Txandakakoa, 3 txandatan - Ez espezifiko gehiago	2
***3880**	Fernandez Sanchez, Jon Imanol	Debabarreneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Eibarko Ospitalea / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Guardiaekin/Asteburuekin edota jategunekin	2 2021-03-01
***8666**	Perera Holgado, Raul	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Arab. U. Ospitalea - Santiago / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Guardiaekin	2
***5421**	Burgues Cuellar, Mikel	Arabako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Arab. U. Ospitalea - Santiago / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Ez espezifiko gehiago	2
***7725**	Garcia Chao, Alberto	Debagoieneko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Debagoieneko Ospitalea / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Guardiaekin	2
***5653**	Amostegui Arrese-Igor, Alain	Goierri-Urola Garaiko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Zumarragako Ospitalea / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Ez espezifiko gehiago	2
***7222**	Izquierdo Diez, Jose Alberto	Arabako Errioxako ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Instalazioak / Lezako Ospitalea / 2 Txanda - 2 txanda Go/A - Asteburuekin edota jategunekin	2

2024ko martxoaren 18a, astelehena

NAN/AIZ	Izangaia	Destino esleitua	Hizkuntz eskakizuna / Data derrigorrezkoa
***8518**	Salvador Izaga, Aitor	Barrualde-Galdakao ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Iturgintza / Galdakao-Usansoloko Ospitalea / Txandakakoa, 3 Txandatan - Txandakakoa, 3 txandatan - Ez espezifikoko gehiago	2
***6404**	Delgado Ferrero, Jorge	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Iturgintza - Berogailua / Gurutzetako Unibert. Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2
***8380**	Moran Ruijperetz, Joseba	Donostialdeko ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Arotzeria / Donostiatako Unibert. Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2
***7015**	Gallardo Torres, Dolores	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI / Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa) - Egitura orokorrak - Ospitaleko Arreta / Mantentze-lanak - mantentze-lanak - Pintura / Gurutzetako Unibert. Ospitalea / Goizez - Goizez 08:00-15:00 - Ez espezifikoko gehiago	2